

HIZKUNTZARENTZAT ESPAZIO PARTEKATUEN BILA

MUNDUAREN ETA KOMUNIKAZIO SISTEMEN ERALDAKETEN TESTUINGURUAN, EUSKARARENTZAT AUKERARIK BA AL DAGO?

ANDONI EIZAGIRRE

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ION MUÑOA

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

1. SARRERA

Ez dira gutxi gurean, bereziki euskararekiko eta gure herriarekiko kontzientzia eta kezka dutenen artean, azken urteotan komunikazioari eta hizkuntzari lotuta plazaratzen ari diren ideiak eta iritziak. Nork ez ote ditu entzun, batean edo bestean, gisa honetako esaldiak! *“Euskararen erabilera da erronka. Euskarak gune berriak irabazi behar ditu”. “Gazteak Interneten daude, eta hara gerturatu behar da euskara”. “EITBk bere helburu fundazionalera itzuli behar du euskara eta euskal kultura sustatzeko”.*

Baieztafen horiekin gehiago edo gutxiago bat etorri, badago horien (eta antzekoen) atzean, euskararen garrantziaren kontzientziaz gain, egoera aldaketa baten usaina eta komunikazio sistema, prozesu eta moduetan gertatzen ari diren aldaketan zantzua. Baina, ari al gara benetan ulertzen ideia horiek azpimarratzen dituzten beharren oinarrian dauden gizarte eraldaketak? Edo bestela esanda: jabetzen al gara benetan, gure gizartean zein sakonerako aldaketak gertatzen ari diren interakzio sistemetan?

Gizarteko eraldaketa sakon, azeleratu eta egiturazkoak sozializazio eta komunikazio

prozesuen begiradatik aztertzeak, agian, pista batzuk eman ditzake euskararen erabilerarako eremu, aukera eta erronka berriak ondo ulertzeko.

2. TESTUINGURUA: JOERA GLOBALAK ETA ERAGINAK GUREAN

Mundua azkar eta sakon aldatzen ari da. Ziurgabetasuna, interdependentzia globalak eta abiadura mundu aldakorren ezaugarri nagusietakoak bihurtu dira. Planetaren alde batean sortzen den mugimendu finantzario batek, birus batek edo teknologia batek oso denbora laburrean, lurbira guztiko bizimoduak baldintzatu ditzake gaur egun. Testuinguru hori bizi dugu, eta horregatik, zer esanik ez gurea bezalako herri eta hizkuntza komunitate batentzat, inoiz baino garrantzitsuagoa da gaur neurria ondo hartzea gertatzen ari denari.

Horretarako, ezinbestean, bi baldintza, gutxienez, bete behar dira. Batetik, nahitaezkoa da ondo bereiztea eta ulertzea zeintzuk diren joera globalak, zeintzuk ageriko ondorioak, eta zeintzuk egiturazko faktore eraldatzaileak. Bestetik, bereizketa hori egitearekin batera, zinez garrantzitsua dugu gure tamainara eta ezaugarrietara ondo egokitutako irakurketa egitea errealitateaz.

Aldaketei erreparatzean, ohikoa izaten da nazioarteko erakundeek mundu mailan nagusi diren joera nagusiei buruz egiten dituzten zerrendak aintzat hartzea. Azken urteotan argitaratzen ari diren txostenetan, besteak beste, honako **megajoera globalak** identifikatzen dituzte: Hiriratze bizkorra, aldaketa klimatikoa eta baliabide naturalen eskasia, botere ekonomiko globalaren aldaketa, aldaketa demografikoa eta soziala, aurrerapen teknologikoak, digitalizazioa, indibidualizazioa, komertzializazioa, ezagutza eta teknologiaren garapena, globalizazioa, migrazioen garrantzia, desberdintasunen dibertsifikazioa, gobernu sistema berrien eragina handitzea, segurtasun paradigmaten aldaketa eta abar.

Megajoera horiekin batera, eta horien eraginez, aldaketak antzeman ditugu gure errealtateetan, hainbat maila eta dimentsiotan. Begi-bistakoak eta ezagunak zaizkigun **ageriko fenomenoak** bizi ditugu: aldaketa sozioekonomikoak (finantza krisia, integrazio komertzial eta finantzarioa, klase ertainaren ahultzea Mendebaldean, desberdintasun sozialen areagotzea, etab.); gizarte antz eta heterogeneoak; zaurgarritasun identitarioak; demokrazia liberalaren eta ordezkari politikoaren krisia...

Ikusten eta bizitzen ari garen ageriko fenomeno horien eta megajoera globalen oinarrian, eta azken batez, bizi dugun mundu aldakor honen muinean, ordea, badago egiturazko faktore eraldatzaile bat: **eraldaketa teknologikoa**. Oinarri digitaleko teknologia multzoaren iraultza, historian lehenengoz, aldi berean ari da eraldatzen ekoizpen sistemak eta informazio-komunikazio prozesuak. Alegia, teknologia iraultza berberak aldi berean eragiten die ekoizpen prozesuen aldaketei (aldagai ukigarriak) eta interakzio-sistema, sozializazio eta balio-sistemaren aldaketei (aldagai ukiezinak).

Informazio eta komunikazio prozesuen eraldaketari lotuta, maila ezberdinetako giza eta gizarte interakzioak aldatzen ari dira, eta horrekin, pertsonen sozializazio moduak eta eremuak ere bai. Teknologiari lotutako komunikazio prozesuak eraldaketa


multidimentsionala ari dira edukitzen: komunikazio interpersonala, gizarte komunikazioa, komunikazio publikoa, komunikazio komertziala eta beste aldatu dira. Eta era berean, teknologia horiei lotuta, kultur kontsumoan ere eraldaketa ari da gertatzen: ikus-entzunezkoen bidez ulertzen da gaur mundu globalizatu. Horrekin guztiarekin, gizartean eraldaketa sakona ari da gertatzen, balio-sistemaren eraldaketa azkartzen duelako, pertsonen arteko interakzioak eraldatzen direlako eta azken batez, gizartearen egitura ere eraldatzen duelako.

3. SOZIALIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO PROZESUEN ERALDAKETA ETA HIZKUNTZAREN ERABILERARAKO BALDINTZAK

Munduan ikusten ditugun eraldaketa guztien artean, ekoizpeneko kate globalei loturikoekin batera, gurean oso nabarmen eragiten ari den egiturazko aldaketetako bat da komunikazio eta sozializazio prozesuetan gertatzen ari dena. Paradigma aldaketa baten erdian gaude eta hau ondo ulertzea zinez garrantzitsua da gurea bezalako herri txiki baten etorkizunerako eta gurea bezalako hizkuntza baten aurrerabiderako.

Begi-bistakoa bezain garrantzitsua da hizkuntzaren eta sozializazio-komunikazioaren arteko harremana eta beronen garrantzia edozein giza talderentzat. Izan ere, hizkuntza erdiguneko elementu nagusia da giza eta gizarte interakzioetan, komunikazioan eta sozializazioan. Eta horrez gain, norbanakoak hizkuntzarekiko duen harremana sozializazio prozesuen bitartez gertatzen eta ontzen du.

Pertsonak hizkuntza erabiltzeko giza harremanak, gizarte-interakzioak beharrezko ditu. Interakzio horiek pertsonen sozializazio esparru zenbaitetan gertatzen dira: familia, eskola, auzoa, lantokia, komunikabideak... Esparrua edozein delarik ere, interakzio horietan komunikazioa dago eta, hortaz, zerbait komuna, partekatzen den zerbait, beharrezkoa da. Bestela esanda, partekatutako sozializatorako esparru eta elementurik gabe, ezinezkoa da gizarte-komunitaterik eraikitzea.



Pertsonen sozializazio esparruetan beti egon dira bitartekaritzak, baina gizakiaren historiari begiratuta, bitartekaritza horien garrantzia, pisua eta lekua geroz eta handiagoa izan da: inprenta, masa komunikabideak, Internet... Horrek gizakia eraman du gizarte-errealitate geroz eta mediatizatuagorako joerara. Eta bitartekaritzako elementuek pisu handiagoa hartzean sozializazio prozesuetan, bitartekaritzako elementuetako aldaketen eragina ere handitzen da.

XX. mendearen bigarren erdian, hedabideek (masa komunikabideek) funtzio nabarmena izan dute Mendebaldeko gizarteetako sozializazio prozesuetan: bitartekaritza elementu nagusi bihurtu eta izan dira. Besteak beste, nabarmentzekoak dira gizarte horietan bete izan duten papera: balioen transmisioa, gizarte arauak erakustea, ereduaren hedapena, “agenda setting”-a, gizartearen “homogeneizazioa” hainbat ezaugarritan, etab. Azken batez, neurri handi batean, komunikabideak gizarte kohesiorako bitartekariak izan dira.

Egun, hori aldatzen ari da, bitartekaritzan Internet-en bitartezko elementuak sartzean, gizarte komunikazio paradigma aldatzen ari delako; ez Internet-ek sortzen dituen esfera birtualetan gertatzen denagatik bakarrik, baizik eta dimentsio horrek komunikazio sistema guztietan duen eraginagatik ere bai. Paradigma aldaketa komunikazio prozesuetan egiturazkoa eta integrala da Internet-en ondorioz.

Izan ere, teknologia gisa, Internet-ek baditu hainbat ezaugarri aipagarri: espazioa/denbora ardatzak apurtzen ditu eta informazioaren fluxua errazten eta azkartzen du. Ezaugarri teknologiko horiek eragin zuzena dute pertsonen arteko komunikazioan, gizarte komunikazioan zein komunikabideen sisteman.

Oro har, gizarte baten komunikazio sistema eta moduetan, Internet-en ondorioz honakoak azpimarra daitezke:

- Internet sare globala izanik, lotura eta interdependentziak ere globalak dira.
- Informazioaren azelerazioa gertatzen da.

- Audientziaren zatiketa (fragmentazioa) areagotzen da
- Indibidualizatutako (edo pertsonalizatutako) eduki eskaintza eta kontsumoa ahalbidetzen da.
- Edukiak sortzeko eta zabaltzeko gaitasuna edonoren esku dago.
- Gain-informazioa gertatzen da eta horrek paradoxa bat sortzen du, aldi berean areagotzen baitu “egia” ezagutzeko aukera eta “egia” hori ezagutzeko zailtasuna.
- Komunikabide “tradizionalen” krisia gertatzen da; bai sinesgarritasun krisia eta bai negozio ereduaren krisia ere.
- Ikus-entzunezko euskarriak gailentzen dira.
- Mezuen sinplifikazioa areagotzen da.

Horrekin batera, eta belaunaldien izendapenetara jo gabe, deskribatu aldaketa orokorreko jendarte guztian dute eragina, baina batez ere gizarteko adin tarte batzuegan aldaketak nabarmenagoak dira. Bereizki belaunaldi gazteenak ari dira gehien aldatzen: Bitartekaritzen aukeraketan, erlazioatzeko moduetan, kultur kontsumoen ohituretan, erosketa ohituretan, aisialdiko jokamoldeetan, etab.

Gurean argitaratzen ari diren ikerketa eta datu ezberdinei erreparatuta eta deskribatutako komunikazio eta sozializazio esparruen aldaketen markoan, azpimarratzekoak izan daitezke honakoak:

- Kultura kontsumo ohituretan aldaketak daude (ez euskarrietan bakarrik).
- Aktualitateko informazioa jarraitzeko iturri desberdin gehiago daude.
- Espazio eta denboran kointzidentzia gutxiago dago (Modan dagoena gizarte lokal bati dagokio? Ala beste eremu batzuei?)
- Marko erreferentzial ezberdin gehiago (edo zatikatuagoak) daude.

- Elementu sinboliko ezberdin gehiago (edo zatikatuagoak) daude.
- Pertsonen jokabide sozialetan aldaketak daude.

Hortaz, sozializazio prozesuetan bitartekaritzako elementuek sekulako garrantzia duten egunotan, gizarte komunikazio prozesuak eraldaketa sakonean daude. Espazio komun fisikoek pisua galdu dute, eta bitartekaritzakoak zatikatu (atomizatu), globalizatu eta konplexuago bihurtu zaizkigu. Partekatzen jarraitzen dugu, espazio fisikoa (herria, hiria, auzoa, lantokia, eskola) eta gizarte egituraketa (politikoa, ekonomikoa), hezkuntza sistema, etab. Baina bitartekaritza bitartez, geroz eta elementu erkide gutxiago ditugu. Horren gutziaren aurrean galdera honakoa da: Halako ezaugarriak dituen espazio komunikatibo orokorrean, ba al dago aukerarik euskararen etorkizuneko espazio/aukera berriak jorrazteko?

4. AUERRERA BEGIRA: IDEIA BATZUK EZTABAIDARAKO

Testuinguruko aldaketen egoera eta komunikazioaren paradigma berriaren ezauzgarriak deskribatuta, eta diagnostiko horren gainean galdera nagusia formulatuta, gogoeta eta eztabaidarako ideia batzuk plazaratu asmo dira jarraian. Behin betiko erantzun dogmatikoak izatetik urrun, hausnarketarako lagungarri izan daitezkeelakoan, etorkizuna jorrazteko helduleku gisa, gutxienez lau bide posible ikusten dira:

1. Espazio zatikatua bateratzeko estrategiak: bitarteko komunak sortzea ekosistema komunikatibo horretan.
2. Dagoen espazio zatikatuan elementu komunak eta erreferentzialtasun berriak topatzen saiatzea (sinbolo globalak eta euskarazko mundua uztartzen saiatuz).
3. Dagoen espazio zatikatuan elementu propioen produkzioa sustatzea.
4. Bitartekaritzen hain menpeko ez diren espazio komun partekatuetako

sozializazio prozesuak indartzea: espazio fisikoa eta egitura sozialak aprobetxatuz.

Horietako bakoitzak hainbat aukera, oztopo, abantaila eta desabantaila izan ditzakeela kontuan harturik, eta sakonean lantzeko hemen espaziorik ez dagoenez, hausnarketa partekatua sustatzeko asmoz, hainbat ideia galdera moduan planteatzen dira hemen:

1. ESPAZIO ZATIKATUA BATERATZEKO ESTRATEGIAK: BITARTEKO KOMUNAK SORTZEA EKOSISTEMA KOMUNIKATIBO HORRETAN

- Egingarria litzateke espazio zatikatu horretako bitartekari nagusiak euskaratik eta euskararentzat lotzen saiatzea?
- Adibidez, Netflix eta EITB uztartzea? Edota Instagram eta euskal hedabide sistema? Edota kirol aisialdia eta Facebook?
- Posible litzateke espazio zatikatua harilkatzeko funtzioa lukeen "EITB" bat irudikatzea?

2. DAGOEN ESPAZIO ZATIKATUAN ELEMENTU KOMUNAK ETA ERREFERENTZIALTASUN BERRIAK TOPATZEN SAIATzea (SINBOLO GLOBALAK ETA EUSKARAZKO MUNDUA UZTARTZEN SAIATUZ)

- Zeintzuk izan daitezke euskararentzat probetxuzkoak liratekeen sinbolo globalak? Modaren munduan daude? Ekologiaren munduan? Musikarenean? ...?
- Zein erreferente ditugu euskararentzat? Euskal hiztun erreferentziazkoak zeintzuk dira? Edota erreferentzialak diren aktore globalak euskaraz jar daitezke?
- Greta Thunberg-ek jasangarritasunaren kontzeptuaren baitan hizkuntza txikiak aipatzea da bidea? *Tronu Dema*-n Gaztelugatxe edo Itzurun agertzea da?

3. DAGOEN ESPAZIO ZATIKATUAN ELEMENTU PROPIOEN PRODUKZIOA SUSTATZEA

- Zein presentzia dute espazio zatikatu horietan (bitartekaritzakoan nahiz zuzenekoan) euskal produkzioek?
- Zein da euskarak mundu digitalean indar handiagoa hartzeko bidea? Eta egingarria da hori? Eskala nahikoa badugu? Edo indar xahutze bat izan daiteke inoiz irabazi ezin den guda batean?
- Zuzeneko espazio fisikoan euskaraz ekoizitakoak zein leku du? Zein marko nagusitzen da? Zein elika daiteke?

4. BITARTEKARITZEN HAIN MENPEKO EZ DIREN ESPAZIO KOMUN PARTEKATUETAKO SOZIALIZAZIO PROZESUAK INDARTZEA: ESPAZIO FISIKOA ETA EGITURA SOZIALAK APROBETXATUZ

- Partekatutako espazio nagusia fisikoa (herria, auzoa, lantokia, eskola...) izaki, ez ote litzateke hor lan egin beharko euskararen presentzia indartzeko?
- Eta horretarako, estrategia euskararen erabilera sustatzea da, edota horietako sozializazio prozesuak eta komunitateak indartzea beharrezkoa da aurrez? Alegia, komunitate eta sozializazio prozesu ahulduak edukita, euskara sustatze soila agian nahikoa ez litzateke?

Honenbestez, daukagun egoeraren aurrean, lanketarako balio dezaketen balizko lau bide proposatzen ditugu. Bestela ezin daitekeenez, gehiago ere egon litezke, edo beste modu batera sailkatu eta azaldu daitezke. Gogoetarako eta eztabaidarako abiapuntua baino ez dira. Edozein modutan, baina, bide guztiek ez lukete lehentasun berbera eduki behar, ziurrenik denen eragiteko gaitasuna ez delako berdina.

Gure ustez, lehentasunak ezartzeko, aurrez gutxienez bi baldintza ondo bete behar dira. Batetik, ezinbestean ondo ulertu beharrean gaude egiturazko eraldaketak, gertatzen ari denaren sakontasunaz eta garrantziaz behar bezala jabetzeko, eta kontzientzia horretatik eragiteko. Bestetik, gure buruari neurria ondo hartzea ere nahitaezkoa dugu, tamainaren, eskalaren, indarren, gaitasun eta abarren jabe zintzotasunez izan gaitzen.

Baldintza horiek kontuan hartuta, apustuak egiterakoan honako irizpide nagusia proposatuko genuke: gure esku dauden eta eragin gaitasun handiena izan dezaketen elementuetan indarrak biltzea. Gure helburua euskararentzat aukera eta espazio berriak jorratzea izaki, egingarrien eta eragingarrien diren bideak hobetsi behar dira hain azkar eta sakon eraldatzen ari zaigun paradigma komunikatiboan euskal komunitateak lekurik izango badu euskaratik eta euskaraz ere jarduteko.

